

## **PRIBATUTASUNARI DAGOZKION ESKUBIDEEZ BALIATZEKO INPRIMAKIA**

### ZURE DATU PERTSONALEI DAGOZKIEN ESKUBIDEAK BALIATZEKO ESKARIA

#### 1. INFORMAZIOAREN TITULARRAREN ETA/EDO HAREN ORDEZKARIAREN DATUAK

#### 2. ORDEZKARI BIDEZ JARDUTEKO, IDATZI HAREN DATUAK

\* Eskaria egiteko, ez dago nahitaez bete beharrik ikur honekin markatutako eremua. Hona eremu horretako datuak eskatzearen zergatia: zurekin harremanetan jarri ahal izatea, zure eskariaren alderdiren batek zalantzarik sortuta ere.

#### 3. ZER ESKUBIDE BALIATU NAHI DEN

Eskubide hauez baliatzeko eskaria egin dezakezu: zure datuak eskuratzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko, beste norabait aldatzeko, erabaki automatizaturik ez jasotzeko, zure baimena kentzeko eta zure datuen nazioarteko transferentzietan aplikagarri diren bermeen gaineko informazioa jasotzeko eskubideak. Hona hemen balia ditzakezun eskubideen zerrenda.

Adierazi, goitik beherako zerrenda honetan, zer eskubide baliatu nahi duzun:

- Datuak eskuratzeko eskubidea.** Markatu, goitik beherako zerrenda honetan, zer jakin nahi duzun:
  - Ea zuri dagokizun datu pertsonalik ari den tratatzen FABRIKA.
  - Zure datuen jatorria, zuk emanak ez badira.
  - Zer helburu dituen zure datuen tratamenduak.
  - Zer multzotako datuak diren.
  - Zer hartzaileri edo hartzaile-multzori lagatzen zaizkien datuak, batez ere hirugarren batzuk edo nazioarteko erakundeak badira.
  - Ahal izanez gero, datu pertsonalak noiz arte gordetzea aurreikusten den; ezin bada, zer irizpide erabiliko diren epe hori zehazteko.
  - Ea FABRIKAK erabaki automatizaturik hartzen duen —profilak egitea barne dela— zure datu pertsonalak erabiliz.

- **Datuak aldatzeko.** Markatu, goitik beherako zerrenda honetan, zer nahi duzun:
  - Datu pertsonalak osatzea, ez baitaude guztiak.
  - Datu pertsonalak eguneratzea edo zuzentzea, egungo egoerarekin bat ez baitatoz, edo ez baitira zuzenak.
- **Datuak ezabatzeko eskubidea.** Markatu, goitik beherako zerrenda honetan, zer nahi duzun:
  - Zure ustez, zure datuak jada ez dira beharrezkoak jaso edo tratatu ziren xedeetarako.
  - Kendu egiten duzu zure datuen tratamenduak oinarri duen baimena, eta tratamenduak ez du jada beste legitimazio-oinarririk.
  - Zure datuen tratamendu aurkaratzeko eskubideaz baliatu zara, arrakastaz baliatu ere.
  - Zure datuak legez kontra tratatu direla uste duzu.
  - Ezabatu egin behar dira zure datu pertsonalak, FABRIKARI ezarritako lege-eskakizun bat betetzeko.
- **Tratamendua mugatzeko eskubidea.** Markatu, goitik beherako zerrenda honetan, zer nahi duzun:
  - Zure datu pertsonalak zuzentzea eskatzen duzu, epe batez, harik eta FABRIKAK haien zehaztasuna egiaztatzen duen arte.
  - Legez kontrakoa da tratamendua, eta zuk ez duzu nahi datu pertsonalak ezabatzea; horren ordez, datuen erabilera mugatzeko eskatzen diozu FABRIKARI.
  - FABRIKAK jada ez ditu behar datu pertsonalak tratamenduaren xedeetarako, baina zuk behar dituzu, erreklamazioak aurkezteko, baliatzeko edo defendatzeko.
  - Tratamenduaren aurka zaudela jakinarazi duzu, FABRIKAREN arrazoi legitimoak zure eskubidearen gainetik dauden argitzen den bitartean.
- **Datuak beste norabait eramateko eskubidea:** Eskubidea duzu eman dizkiguzun datuak erabilera arrunteko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jasotzeko eta tratamenduaren beste arduradun baten esku jartzeko, eta FABRIKAK ez du hori eragozteko eskubiderik. Halaber, hau eskatzeko eskubidea duzu: zure datuak tratamenduaren beste arduradun baten esku uzteko, teknikoki horretarako aukerarik baldin bada. Nolanahi dela ere, kasu honetan bakarrik duzu horretarako eskubidea: zure baimenaz ari bagara tratatzen zure datu pertsonalak, edo zurekin kontratu baten arabera ari bagara tratatzen zure datu pertsonalak eta tratamendua baliabide automatizatuak erabiliz egiten bada.
- **Aurkaratzeko eskubidea:** Eskubidea duzu guri hau eskatzeko: zure datu pertsonalak erabiltzeari utz diezaiogula; esate baterako, uste baldin baduzu dauzkagun zure datu pertsonalak ez direla zuzenak edo jada ez dugula haien beharrik. Zure datuak zuzeneko marketinerako erabiltzen baditugu, eskubidea duzu tratamendu hori aurkaratzeko, bai eta profil-prestaketa ere, baldin eta zuzeneko marketinarekin lotura badu. Horretarako, eskubide hori balia dezakezu, edo zuri marketin-mezu gehiago ez bidaltzeko eskatu, bidaltzen dizkizugun publizitate-mezu elektronikoko guztietan baja emanez edo haien harpidetza ezeztatuz. Noiznahi balia dezakezu zure datu pertsonalen edozein tratamendu aurkaratzeko eskubidea, zure egoera partikularrekin lotura duten arrazoiengatik, baldin eta tratamenduaren legezko oinarria «gure interes legitimoak» badira, uste baduzu zure eskubideak gureen gainetik daudela. Dena dela, FABRIKAK zure datu pertsonalak tratatzen jarrai dezake baldin eta frogatzen bada premiazko interes legitimoak dituela, edo FABRIKAK erreklamazioak aurkezteko, adierazteko edo defendatzeko tratatu behar dituela zure datuak.
- **Erabaki automatizaturik ez jasateko eskubidea, baldin eta haren oinarria zure datu pertsonalen tratamendua bada, profilen prestaketa ere barne dela:** Eskubidea duzu FABRIKAREN erabaki bat aurkaratzeko, baldin eta soilik zure datuen tratamendu automatizatuan oinarriturik hartu badu, inongo giza jarduerarik gabe. Dena dela, kasu honetan bakarrik duzu eskubide hori: erabakiak lege-ondorioak eragiten badizkizu, edo beste nolabait nabarmen eragiten badizu. Aipatutako horren gisako erabakiren bat aplikatu badizute eta ados ez bazaude, jar zaitez FABRIKAREKIN harremanetan eta eska iezaiozu erabakia berriro aztertzeko, giza jarduera eskatzeko, zure iritzia emateko edo erabakia nolahi aurkaratzeko. Ez duzu erabaki automatizaturik aurkaratzeko eskubiderik baldin eta:
  - Zurekin kontratu bat sinatzeko edo hura betearazteko beharrezkoa bada,
  - Legeak baimentzen badu eta

zure eskubideak eta askatasunak babesteko neurri egokirik badago, edo • zure adostasun esplizituan oinarritzen bada.

Mesedez, esaguzu zer xehetasun iruditzen zaizkizun beharrezkoak edo esanguratsuak, zure eskaria ahalik eta egokien artatu dezagun.

2

Behar bezala beteta bidali behar duzu inprimakia, bai eta zure nortasun-agiri ofizialaren fotokopia balioudun bat ere, ordenamendu juridikoari jarraikiz. Hirugarren baten ordezkari ari bazara, interesdunaren nortasun-agiriaren fotokopia eta ordezkari-tza-agiria aurkeztu behar duzu.

Gehienez ere hogeita hamar egun barru jakinaraziko zaizu erantzuna. Beste bi hilabete luza daiteke epea, eskaria konplexua baldin bada edo FABRIKAK eskaera askori erantzun behar badie.

Esan, mesedez, nola nahi duzun jaso erantzuna:

- Posta elektronikoz
- Posta arruntez

Data

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA:** Arduraduna: FABRIKA Helburua: Kudeatzea eta bideratzea beren datu pertsonalei FABRIKAK ematen dien tratamenduari dagozkion eskubideak baliatzeko interesdunek aurkeztutako eskariak. **Legitimazioa:** Lege-eskakizuna betetzea. **Eskubideak eta informazio osagarria:** Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio osagarria jasotzeko, jo [www.fabrika.eus](http://www.fabrika.eus)-en pribatutasun-atarira.